

Ebazpena 2021eko maiatzaren 15koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; Bektoreetako (metodologia berritzaileak, nazioartekotzea eta erakundeekiko harremanak) Ebaluazio Batzordearen kide bat kentzea eta beste kide berri bat izendatzea xedatzen duena.

13/2012 Legearen, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa, 8.3.d) artikulua xedatze duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta. Halaber, 10. Artikuluaren arabera, ebaluazio batzordeak ebaluatu behar diren arloen ikaslerian inpaktu zuzena duten jarduera eta programetako ikasleez osatuta egongo dira. Hauek, unibertsitate ikasleen partaidetzaren Euskadiko organo zehatzak izendatuko ditu.

Horregatik aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

HAUXE EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Bektoreetako (metodologia berritzaileak, nazioartekotzea eta erakundeekiko harremanak) Ebaluazio Batzordeko kide hau kargutik kentzea:


Ikaslea: Ana Rosa Gómez Arroyo.

Bigarrena.- Bektoreetako (metodologia berritzaileak, nazioartekotzea eta erakundeekiko harremanak) Ebaluazio Batzordeko kide berri hau izendatzea:

Ikaslea: Francisco Conde Oria

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 15a.



Iñaki Heras Saizarbitoria
Unibasq-eko zuzendaria